## ANDERE

Guri begira zagoz argi
Begi lasaiez aspaldian
Edertasunaren irudi
Gizarte hunen ilunpian

Zure gorputz miresgarria
Zeruko izarraren pare
Zure sabelaren eztia
Dirade guretzat aterbe

Denek zaitugu desiratzen
Beharrezkoa zirelako
Otsoak gira bilakatzen
Gure artean zuretako

ANDERE, ANDERE
BIZIKO LANDARE
ARANTZ ETA LORE
MAITASUN BOTERE

Zu zira behar dugun hatsa
Gure gogoaren hazkurri
Sortzeak dakarren ametsa
Ezin agortuzko iturri

Denek zaitugu izendatzen
Galtzen ari zaitugunean
Askotan zaitugu ukatzen
Traba egiten duzunean

ANDERE, ANDERE
BIZIKO LANDARE
ARANTZ ETA LORE
MAITASUN BOTERE

Zoin ziren atsegingarria
Bakez jantzia zirenean
Gosez denaren bazkaria
Esperantza galdu denean -

Baina gizonak asmatu du
Boterearen errabia
Bere ekintzetan zikindu
Zure izenaren garbia

Bakez, gudu - Gudoz, bake -

ANDERE, ANDERE
BIZIKO LANDARE
ARANTZ ETA LORE
MAITASUN BOTERE

Egun batez zuzentasuna
Zure ohean etzanen da
Gure lurrean zoriona
Maitasunez estaliko da - Maitasunez, maitasunez . . .

Hitzak: A. DUHALDE . Musika: B. AMORENA - M. DUCAU

Jean Paul GILLES: Behegitarra
Anje DUHALDE: Kanta, perkusioak ta gitarra
Mixel DUCAU: Kanta, soprano saxo ta gitarra
Beñat AMORENA: Kanta, bateria

## ORAINO

Nere laguna hiltzera doa
Nere laguna hil da.
Eta eguzkiari hori zer zaio
Eta eguzkiari hori zer zaio
Berotzen duelarik oraino

Jainkoa hiltzera doa
Jainkoa hil da
Eta lurrari hori zer zaio
Eta lurrari hori zer zaio
Itzulikatzen da oraino

Esperantza hiltzera doa
Esperantza hil da
Baina gizonari hori zer zaio
Baina gizonari hori zer zaio
Burrukatzen da oraino

Nehorentzat eta deusentzat
Otsoen pare txori batentzat
Nehorentzat eta deusentzat
Hiltzera doan txori batentzat

Hil den txori batentzat
Eta burrukatzen da oraino . . .

Hitzak: A. DUHALDE . Musika . A. DUHALDE - M. DUCAU

Mixel DUCAU: Kanta, gitarra akustika
Beñat AMORENA: Kanta, tablak
Anje DUHALDE: Kanta, perkusioak
Jean Paul GILLES: Behegitarra.

Soinu hartzailea: Jean Phocas
Eskulturak eta azalaren diseinua: Pantxua St. Esteban
Azaleko argazkiak: Jan Pierre Artola
Barneko argazkia: Philippe Mezia
Kudeatzaile: Bernard Tavitian

Xoxoako lagunei, eta hurbil edo hurrundik diska hunen egiten lagundu gaituzten guziei, gure eskerrik beroenak.



Biziaren uholdean, panpinak iduri
Alde batetik bestera bagabiltza larri
Zorionaren ondotik hori da lokarri
Lanak diotén bezala chartzen du sari.

Baina zorion azokan prezioak gora
Eta moltsa gehienak frango hutsak dira
Jokutriaren etxean sartzen ez bazira
Mundu huntan amesalari geldituko zira

Mundua gaizki doa, mintua da saltsa
Baina biziak ezin du ukatu ametsa

HIRE AMETSAK EZ DITUK MENTSAK
BIZI AHAL DITUK TA BIZI BEHAR ...

Hitzak: A. DUHALDE. Musika: M. DUCAU
Beñat AMORENA: Kanta ta bateria
Mixel DUCAU: Kanta, gitarra akustika, elektrika ta txirula
Jean Paul GILLES: behegitarra.
Anje DUHALDE: Kanta, gitarra akustiko ta elektrika.

## AMETSAREN BIDE

Ametsaren bide zabal zabalean
Galtzen ari naiz baina utz nezazue neure munduan.
Mundu huntan ez da mitorik laudatzen
Hemen kateak dira, askatasunez elgarri lotzen.
Maitasun osoaz beterik dagon mundu batean
Nago bakean.
Hemengo eleak, goxo ta alaiak
Adixkidetasunez, berotasunez dira beteak.

Ametsaren bide galduan
Ibili naiz neure kaltetan
Ta orai hemen nago uzkur
Zuen lo zurrungetaz beldur.
Gure munduak ametsari
Uko egin dio aspaldi
Baina barnetik xirri-mirri
Boz batek beti deraut neri

HIRE AMETSAK EZ DITUK MENTSAK
BIZI AHAL DITUK TA BIZI BEHAR ...

Zuen behako zorrotzetan
Ikusten dut lano beltzetan
Desgraziaren itzal lotza
Ezpataren laban bortitza
Gure gizarte higinduak
Loreak ditu lehertuak
Armsak galdu du bilotza
Arrantza bizi da zorrotza

HIRE AMETSAK EZ DITUK MENTSAK
BIZI AHAL DITUK TA BIZI BEHAR ...

## ALBOKA

Musika: B. AMORENA. M. DUCAU

Anje DUHALDE: Alboka, gitarra
Jean Paul GILLES: Behegitarra
Mixel DUCAU: gitarrak
Beñat AMORENA: Bateria, perkusioak.

